

2000ko MAIATZAREN 29ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi milako maiatzaren hogeitagaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Xabir Balerdi Urdanpilleta, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- PLAZA SOROKO LURREN ARAZOA

Idazkariak, Plaza Soroko Lurren Arazoa dela eta, erabaki proposamena irakurtzen du, eta honela dio:

ERABAKI PROPOSAMENA

IKUSIRIK.- Malentxo ARROSPIDE ARRATE, Inaxio OLAETXEA KARRERA eta Julian ZUBELDIA AIERBE Jaun/Andreek, Isabel OLAETXEA KARRERA Andrearen izenean aurkeztutako idazkiak. Idazki horien bidez, Hiri Antolamenduko Arauetako 3. Eremuko lursailen salerosketaren ondorioz LIZARTZAKO Udalak ustez egindako zorren kitapena eskatu dute.

IKUSIRIK.- Gai horretarako egindako txostena, 2000ko maiatzaren 17ko data duena.

GERTAKARIA, 1989ko urtarrilaren 16an, elkarren arteko adostasunez, Balio Justua Zehazteko Akta sinatu zen, alderdiak honakoak zirelarik: Isabel OLAETXEA KARRERA, lursailaren titularra, eta Julian

ZUBELDIA AIERBE, Administrazioaren ordezkaria.
Adostutakoa hemen agertzen dena izan zen:

Lehena.- Akta honetan benetako gorputz gisa hartutako lursaila eta beronen jabetza, eskubide eta osagarriak direla eta, izenpetzen duen jabeari dagozkion gisa honako guztizko kopuru hau finkatzea: **BI MILIOI LAUROGEITA HAMAR MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAR (2.090.550,-) pezta.**

Bigarrena.- Kopuru honek barnean hartzen dituela, halaber, aipatutako lursaila deta eta, azkar hartzetik, sortutako kalteetatik, irabazi gabe geratzen denetik eta jabeari legozkiokeen eskubide edo interesetik eratorritako kalteen ordaina ere.

GERTAKARIA, Julian Zubeldia Alkateak, 1989ko apirilean, Udal fondoetatik Isabel OLAETXEARI 2.090.550,- pezeta ordaintzeko agindua eman zion kontuhartzaileari, Plaza Soroko lursailaren erosketagatik eta atxikidura-sariagatik. Eta Felipe POU AMPUERO jaunaren aurrean, Iruñeko Notarioen Elkargo Txist Argikoa, lehen aipatutako lursailaren salerosketaren eskritura publikoa, 1992ko martxoaren 11ko data duena, egiletsi zen, 2.090.550,- pezetako prezioan.

GERTAKARIA, Aurkeztutako idazkietan eskatu da Isabel OLAETXEAREN lursailaren metro koadroaren prezioa, Nahitaezko Desjabetzapenerako Lurralde-Epaimahaiak, 1993 urtean, Bengoetxea familiaren lursailari ezarri zion balio justuarekin parekatzea.

GERTAKARIA, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako 2. Aretoan 4249/97, 2016/98, 2017/98 eta 2018/98 zenbakiak dituzten administrazioarekiko auzi-errekurtsuak

aztertzen ari dira. Aipatutako errekursoak, Javier URKIZAR LARRARTE, Castor OLAETXEA GARAIKOETXEA, Jesusa GARAIKOETXEA ORMAETXEA eta Gaspar BARRIOLA IRAZUSTA Jaun/Andreek Nahitaezko Desjabetzapenerako Lurralde-Epaimahaiak hartutako erabakiaren aurka jarri dituzte, LIZARTZako Hiri Antolamenduko Arauetako 3. Eremuko lursailen metro koadroaren prezioa, 4.080,- pezetatan ezarri zuen erabakiaren aurka hain zuzen.

ZUZENBIDEKO OINARRIA, Aipatutako dokumentazioa azterturik, Hiri Antolamenduko Araueta 3. Eremuko lursailaren erosketagatik LIZARTZako Udalak egun ez du inolako zorrik Isabel OLAETXEA KARRERA Andrearekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIA, OLAETXEA andrearen ordezkariak beren idazkietan kontrakoa adierazten badute ere, ez da egungo Udalbatza, OLAETXEA andrearekin ahozko akordiorik lortu duena. Ahozko akordio hori egin zeneko Udalbatzaren kideak, egun OLAETXEA andrea ordezkatzan duten pertsona berberak dira, eta horrela jasotzen da 1989ko urtarrilaren 16an, elkarren arteko adostasunez sinatutako Balio Justua Zehazteko Aktan. Agiri horretan, Administrazioaren ordezkaria, Julian Zubeldia da.

ZUZENBIDEKO OINARRIA, Udalak erabilitako likidazioa aplikatuz gero, Udalaren aldeko saldoa sortzen da, 3. Eremuan egindako desjabetzapenetan ordaindutako prezioa aplikatu ala ez.

ZUZENBIDEKO OINARRIA, LIZARTZako Udalak, herri-administrazioa den neurrian, ezin du justifikaziorik gabeko

ordainketarik egin, horrelakorik eginez gero erantzukizun penalean sartuko litzatekeelako. Besteak beste, Kode Penalaren 306, 433 eta 434 artikuluetan azaltzen da sailkaturik erantzukizun hori. Horrez gain, Toki Erakundeen jarduna araupetzen dituzten lege-xedapenek ere administrazioaren inguruan betebegar batzuk ezartzen dituzte.

Hori guztia, egungo Udalbatzak idazkien egileek eskatu bezala jardungo balu, haren gain hartu beharko litzukeen erantzukizun politiko larrien kalterik gabe.

Guzti hori kontuan harturik,

PROPOSATZEN DA:

Lehena.- LIZARTZAko Udalak, Hiri Antolamenduko Arauetako 3. Eremuko lursailak erosteagatik ustez egindako zorren kitapena eskatzeko, Malentxo ARROSPIDE ARRATE, Inaxio OLAETXEA KARRERA eta Julian ZUBELDIA AIERBEk, Isabel OLAETXEA KARRERAREN izenean, egindako eskaera, oso-osoan, ez onartzea.

Bigarrena.- Lehen puntuan aipatzen diren pertsona guztiei erabaki honen berri, modu legalez, jakinaraztea.

Ondoren, eta gaia sakonki eta gogor eztabaidatu ondoren, Plaza Soroko Lurren Arazoari buruzko erabaki proposamena, aho batez onartua izan da.

3.- 2000ko AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA

**KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO
KREDITU-ALDAKETARAKO 1 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO
PROPOSAMENA**

Lizartzako Udal honen 2000ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 2.761.860,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

**4.- LAGUNTZAZKO ARAUETAKO A-6 AREAKO ALDAKETARI LEHEN
ONARPENA EMATEA**

**"LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-6 SEKTOREKO
ALDAKETAREN LEHEN ONARPENERAKO PROPOSAMENA**

IKUSIRIK.- SERRERIA GOIKOETXEAUNDIA S.L.k eskatutako, Asmatu S.L. Taldeko, Luciano Paguegi Arkitektuak osatutako Lizartzako Arau Subsidiarioetako a-6 Sektoreko Aldaketarako agiriak ikusirik.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2000ko Martxoaren 3an amaitu zela, Proiektuaren Aurrerapena jendaurrean egoteko epea, inolako iradokizunik aurkeztu ez delarik.

Guzti horregatik, Udal Batzarrari, zera proposatzen zaio:

- 1.- Serreria Goikoetxeaundia S.L.k aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioetako A-6 Sektoreko Aldaketaren agiriari, lehen onarpena ematea.
- 2.- Agiri hori jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta egunkari batean argitaratzen den azkenenego datatik kontatuko delarik.

Laguntzazko Arauetako A-6 Areako Aldaketari lehen onarpena ematea, aho batez onartu da.

5.- LANPOSTUETAKO ARRISKUEN EBALUAKETA

Lan Baldintzak hobetzeko, Lan Arriskuen Prebentziorako 31/95 Legea lehendabizi (1995.ko Azaroa), eta ondoren, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua indarrean ezarri dira.

Aipatutako legearen 6. Artikuluak adierazten duenez, enpresariak berak hartu behar du lantokiko prebentziorako plangintzaren ardura, eta abiapuntu bezala langileen segurtasun eta osasunerako arriskuen hasierako ebaluaketa bat egitea eskatzen da, langileen lan mota eta arriskupean lan egiten duten langileak kontutan hartuko direlarik. Ebaluaketaren emaitzen ondorioz, enpresariak, langileen segurtasun eta osasuna babestuko dituzten beharrezko bitartekoak jarri beharko ditu.

Bestalde, Legearen 30. Artikuluak eta Erregelamenduaren 10.ak diotenez, enpresariak, prebentziorako egin beharrekoak, partzialki edo bere osotasunean, Prebentzio lanetara dedikaturiko edozein zerbitzu kreditaturen eskuetan utz ditzake. Prebentzio lan honek eta berori aurrera eramateko baliabide guztien antolaketak garantziatu egin behar dituzte beti, eta esparru guztietan, langileen segurtasun eta osasuna.

Guzti hori kontutan hartuaz, hainbat etxeei, Lizartzako Udaleko Lanpostuetako Arriskuen Ebaluaketa egiteko proposamenak aurkeztea eskatu zaie, eta hauek aurkeztu dute:

URKO, Servicios de Prevención S. Coop. 150.000,- + BEZ.

KIDELAN, 397.000,- + BEZ. Aurrekontuan Frontoiaaren ikuskapena sartua dago.

OSAIRU, S.L. 250.000,- BEZ barne delarik.

PREVENCILAN S.L. 240.000,- + BEZ

Aurkeztu diren eskeintzak aztertuz zera agertzen da:

URKO Servicios de Prevención S. Coop. Behin Behineko Akreditazioa du.

KIDELAN. Ez du akreditaziorik.

Beste biak, Behin Betiko akreditazioak dituzte.

Hauen proposamenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Lizartzako Udaleko LANPOSTUETAKO ARRISKUEN EBALUAKETA egitea, PREVENCILAN, S.L.ri adjudikatzea, 240.000 + BEZ aurrekontuarekin, aho batez erabaki da.

6.- IGOKA ESPEDIENTEA. MAMIA EGITEKO FABRIKA

IKUSIRIK.- Lezinea Baserrian, Mamia egiteko fabrika jartzeko baimena eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

IKUSIRIK.- Etxezahar Baserriko jabeak den, M^a SOL UBIRIA MITXELENA Andreak, 2000ko Maiatzaren 3an, Lezinea Baserrian egin den hobi septikoa dela, Udalean aurkeztu duen kexa.

Horren arabera, zera proposatu da:

- 1.- Etxezahar Baserriko jabeak jarritako kexa, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Naturguneako Departamentuari bidaltzea, ala behar izanez gero, hobi septiko horri neurri zuzentzaileak jartzeko.
- 2.- Roke Arozena Goikoetxeak eskaturik, Lezinea Baserrian, Mamia egiteko fabrika jartzeko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 3.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, MAMIA EGITEKO FABRIKA kalifikazioa proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- UBERETAKO ZUBIAREN LIKIDAZIOA

Otegi Eraikuntzak S.L.k aurkeztutako, Uberetako Zubiaren Likidazioa, eta horri buruz Arkitektoak eginiko txostena aztertu eta eztabaidatu ondoren, HAMAR MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA EHUN

ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI (10.970.178,-) peztatako likidazioa, aho batez onartu da.

8.- HERRI BIDEAK BREATZEKO LIKIDAZIOA

Coprisa S.A.k aurkeztutako, Basaitzaldeko Pista eta Frontoi inguruko kalea breaizearen Likidazioa eta horri buruz luzatutako txostenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, BOST MILIOI ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA HOGEITALAU (5.886.624,-) peztatako likidazioa, aho batez onartu da.

9.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

CARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA

Arostegi Baserrian oilo leku eta oilasko lekua jartzeko baimena eman zaio. Hau, PREKARIOAN ematen zaio.

ANA EDERRA IRURZUN

Alkatearen oporrak direla eta, Ana Ederra Irurzun zinegotzia izendatzen du, Alkatearen Ordezkoztan aritzeko.

JUAN AGINAGA IZAGIRRE

Goikoetxetxiki Baserriaren eraberritzen lanak egiteko BAIMENA eman zaio, baldintza hauekin:

- Estalkia teila arabiarrez bukatua.
- Fatxadak zuriberrituak, inguruko ohizkoak bezala.
- Zurgintza elementuak egurrezkoak.
- Obrak bukatu eta gero egoera berria eskritura eta haziendan jaso behar da.

MIGUEL GARZIARENA AURKIA

Kale Nagusiko 1ean dagoen etxearen teilatuko teilak berritu eta fatxada pintatzeko baimena.

JOSE RAMON ZUBILLAGA ZUBIARRAIN

Zubiegi etxea eraberritzeko baimena, baldintza hauekin:

1. Prozedura eta kontrola

Egungo terrazari teilatua emateko exekuzio proiektua aurkezten da. Estalki berriaren egitura egurrezkoa izango da eta azaleztadura teila.

Segurtasun eta osasunbide oinarrizko azterlana ere jasotzen da proiektuarekin batera.

Hirigintzazko justifikapena aurretik aurkeztutako galde-erreguaren erantzunean oinarritzen da.

2.- AASSen eraikita baimendua dagoen zonaldeko ordenantza berezien arabera estalkia egungoaren isuraldearen luzapena behar luke baina era hortara izkineko baranda gainean oso altura gutxi hartuko luke eta aurkeztutako soluzioa egokiagoa irizten da.

MATERIALAK:

Teila keramika gorria izango da.

Fatxadak planoen arabera apainduko dira.

Kanpoko zurgintzazko elementuak egurrezkoak izango dira.

Eraikuntza proiektuan finkatzen dituen erabilerak gordeko ditu.

ABOKATU ETA PROKURADORE IZENDAPENA

AURREKARIAK

2000ko Martxoaren 20ean Donostiako Administrazioarekiko 2. Auzi Epaitegiak, Manuel Barriola Tolosa eta Agustin Goikoetxeaundia Jaunek, Lizartzako Udalaren erabakia, non 1999ko azaroaren 4ko Alkatetza Dekretuaren aurkako birjarpenezko helegitearen onartezintasuna erabakitzen zuen 1999ko abenduaren 20ko Alkatetza Dekretuaren aurkako helegitea jarri dutela, 125/00 zk.duna, adierazi dio Lizartzako Udalari.

GERTAKARIAK

- 1.- Udal honek obligazioa dauka bere ondasunak eta eskubideak defendatzearen beharrezko legezko akzioak egikaritzea.
- 2.- Oro har, udalbatzari dagokion administrazioiko eta legezko akzioak egikaritzeko.
- 3.- Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 1.- Eraentza Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 21.1k), 22.2j) eta 68.1 artikulua.

Aurreko guztiak kontuan izanik, hona Alkate-Lehendakariak hartutako

ERABAKIAK

- 1.- Manuel Barriola Tolosa eta Agustin Goikoetxeaundia Pagolak ezarritako 125/00 administrazioarekiko auzi-helegitean alderdi demandatu gisa

bertaratzea. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko 2. Auzi Epaitegian ari da bideratzen.

- 2.- Abokatu lana, ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA abokatuari bidaltzea, aipatutako helegitean Udal honen interesak defenda ditzan. Abokatu hori, ISABEL MARIN CANO eta ALBERTO ARENAZA ARTABE Prokuradoreaz balia daitezke. Udal honek prokuradore horiei auzitan aritzeko ahalorde orokorra eman baitie.
- 3.- Hurrengo Udalbatzan erabaki hauen berri ematea eta, bidezkoa bada, Udalbatzak erabakia berrestea.

JUAN SAN SEBASTIAN MURUA

Aldats lurra segregatu eta bere jabetzakoa den Opote-Txiki lur zatiari batu ahal izateko baimena eman zaio.

INAZIO ZEBERIO ARTOLA

Koneju Borda egiteko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

- 1.- Materialen aldetik teila keramika gorria jarriko da edo antzekoa. Fatxadak zuriberrituak izango dira. Zurgintza elementuak egurrezkoak edo gutxienez itxura gordetzeko egurrez azaleztatua. Ezponda edo pendize guztiak landareztatuak.
- 2.- Obra amaieran, IGOKA espedientearen tramitazioan ezarri daitezkeen neurri zuzentzaileak errespetatu beharko dira.

KORO DEL CASTILLO CAMARA

Gizarte Beharrian Larrietarako Laguntza UKATZEA, ondorengo arrazoiaगतिक:

- Eskatzaileak adierazitako bizitze egoera ez dator bat benetzako egoerarekin.

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

Kale nagusia 21, 1.a ezk, etxebizitza antolatzeko baimena EMAN zaio, ondorengo baldintzekin:

- Sukaldean haize berritzeko bakarrik tximini bat izango da teilaturaino.
- Gas instalakuntzen araudia bete beharra izango da.
- Barruko logelak kanpotik hartuko du haizea berritzeko.
- Egungo egoeran ez dira azaltzen egituraren bi zutiko parekatuak etxe barruko pasiluaren erdian eta hauek ezin dira kendu eta ordezkatzekotan zurrinak edo solibak aurretik zutikatu behar dira.
- Kaleko sarreran atari bat antolatzea komenigarria irizten da.
- Egungo etxearen egitura edo hezurduraren baldintzak (portikoak, habe eta zutabeak, berezko zama, gainzamak, etab.) ez dira aldatuko. Egitura sendotu edo aldatu behar balitz, Arkitektoaren proiektua ezinbestekoa da.

PATXI AGIRREGOMEZKORTA

Arbitrios etxean Erretila, fatxada, sukaldea eta bainugela konpontzeko baimena EMATEA, baldintza hauekin:

- Sukaldean haize berritzeko bakarrik tximini bat izango da teilaturaino.
- Gas instalakuntzen araudia bete beharra izango da.
- Teila keramika arabera erakoa izango da.

- Fatxada kolore argiz margotuko da eta zurgintzako elementuak egurrezkoak izango dira.

HAUTESKUNDE BATZORDEAREN ESKAERA

Ikusirik, Batzorde horretatik jasotako idazkiak eta hauteskunde mahaietako lehendakari zein bokalen izendapenei buruzko legeria.

Ikusirik, Errejimen Lokalari buruzko legeria eta 30/1992ko azaroaren 26ko Prozedura Administratiboari buruzko Legea, eta bereziki Administrazioen arteko harremanei buruzko lehen titulua.

ZERA EBAZTEN DU:

- 1.- 2000ko Otsailaren 16ko egunean Udal Batzar honek harturiko erabakiarekin bat, non hauteskunde legeriaren arabera (bereziki, LOREG-aren 27. Artikulua) udal honek ulertzen du eta hala erabakitzen du, jakinerazpenen betebeharra ez dagokiola udalari, baizik eta Zonaldeko Hauteskunde Batzordeari, betebehar hori, LOREG-aren 27. Artikuluan kokaturik bait dago, ez du argitzen zein administrazioak egin behar duen baina zehazki argitzen du, Zonaldeko Hauteskunde Batzordeak erreklamazioei erantzun behar diela, azkena aipaturiko Hauteskunde administrazio hori izanik bertan aipatzen den administrazio bakarra.
- 2.- Hauteskunde Administrazio horri adierazi, ordenamendu juridikoan ez dagoela ezarrita Udal honek menpekotasun harremanik duenik Zonako Hauteskunde Batzorde horrekiko. Beraz, administrazio horri, honen bidez, administrazio honekiko behar duen errespetoa eta Udal eskuduntzen eta agintaritzaren printzipioak bete ditzala eskatzen dio, argituz, jarrera horretan jarraituz gero, legezkoak diren neurriak hartuko dituela.
- 3.- Honekin batera, Batzorde horretatik bidalitako dokumentazioa bueltan itzultzen da, Batzorde horrek bere funtzioak behar bezala bete ditzan.

10.- URJENTZIZKO GAIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentiz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

ALDE HEMENDIK MOZIOA

Guardia Zibila, herri honi eta bere ezaugarri sozio politikoei arrotz zaien indar armatua da. Herri honetan Guardia Zibilaren egiteko nagusia, horretarako bitarteko mota guztiak erabiliaz, euskaldunon hitza eta erabakia ez errespetatzea izan da, hots gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea ukatzea.

Euskal Herrian Guardia Zibilaren presentzia gauzatu zen une beretik egundaino, honen egitekoa ez da euskaldunon interesak defendatzea izan. Oso bestela, bere protagonismo bakarra gisa honetako ekimenetan somatu ahal izan dugu, atxiloketak, torturak, errepresioa, erahilketak eta mota guztietako ankerkeriak Joxi eta Joxeanen kasua lekuko, baina ez dira sufrimentu eta sumindura ekarle soilak, hiritarren arteko harremanak baldintzatzen dituzte, euskaldunon arteko bizikidetza oztopatzen dute eta inportanteena dena, gure herriarentzat demokrazia eta bakean oinarritutako prozesu politikoa etengabe oztopatzen dute, Tolosaldean honen adibide garbiak izan baditugu, euren presentzia Gaztelun, kontrolak Asteasu, Txarama, Lizartza edota Tolosan egiten dituzten paseo beldurgarriak

Guzti honengatik, Lizartzako Plenoari, zera onartzeko proposatzen zaio:

- 1.- Herri honek bizi duen gatazka politikoa gainditzeko modu bakarra euskaldunon hitza eta erabakia errespetatzean datza, euskaldunok eta euskaldunok bakarrik erabaki beharko bait dugu herri honen etorkizuna inolako kanpo eskuhartzerik gabe.

- 2.- Guardia Zibila berehala Euskal Herritik atera dadila eskatzen dugu eta eskualde honetan kokatua dagoen kuartela, hots Tolosan, itxia izan dadila, bertan kokatua dagoen gorputz polizial hori herri honek bere erabakiak hartzerako garaian oztopo bat bait da.
- 3.- Ondorioz, Udalbatza honek Guardia Zibilaren presentzia Herri honetan debekatzen du, modu berean herritarrei gorputz polizial honi inolako laguntzarik ez ematera deitzen diegu.
- 4.- Eta ondorio guztietarako hala jaso gera dadin, erabaki hauek, komunikabide guztiei, Tolosako kuartelera eta herritar guztiei bando bidez jakitera emateko konpromisoa hartzen dugu.

Alde hemendik mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamaikak direnean.